

KUTXABANK TALDEA

Kutxabank Taldeak 2030erako dituen Deskarbonizazio Helburuen Egunerapena 2024ko uztaila



Kutxabank Taldeak, bere jardueraren ingurunearen deskarbonizazioa laguntzeko eta bultzatzeko **konpromisoa hartu du**, eta, horregatik, bere jarduera korporatiboan zein bezeroekiko harremanetan neurriak hartzeko erabakia hartu du, **hazkunde jasangarrian oinarritutako emisio gutxiko ekonomia baterako trantsizio** prozesuan funtsezko eragile izateko helburuarekin.

Zehaztutako jardueren artean, Kutxabank Taldeko Gobernu Organoek **2022ko abenduan onartu zituzten Erakundea deskarbonizatzeko lehen helburuak**, 2024ko uztailean berrikusi eta zabaldu egin direnak. Ildo horretan, **berrikuspen metodologikoa egin da, jarduera-sektore berriak** gehitu dira, eta horien guztien **aurrerapen-mailaren jarraipena** egin da.

Era berean, berrikuspen prozesu horretan, **azterketapean dauden zorroen irismena handitu egin da**. Gaur egun, helburu sektorialek, finantzaketa-zorria, errenta finko pribatuko zorria eta errenta aldakorreko zorria barne hartzen dituzte. Horrez gain, etxebizitzaren hipoteka-zorroari buruzko helburuari eutsi zaio.

Jarraian, **laburpen taula bat** utziko dugu, Taldearen **deskarbonizazio helburuen egunerapena eta helburu horiek lortzeko aurrerapen-maila** erakusten dituena.

2030erako Deskarbonizazio Helburuen Eguneraketa:

SEKTOREA / ZORROA	ERREFERENTZIAZKO EGOERA	EMISIOEN IRISMENA	NEURKETA	OINARRI-URTEA (2021)	% MURRIZKETA HELBURUA (2021-2030)	Bilakaera 2021 - 2023
Energia	NZE 2050 (IEA) 1.5°C	1	kgCO ₂ eq/MWh	138	-30%	-9%
Petroleoa eta Gasa (*)	NZE 2050 (IEA) 1.5°C	1, 2 eta 3	kgCO ₂ eq/GJ	75	-20%	-3%
Zementua	NZE 2050 (IEA) 1.5°C	1 eta 2	kgCO ₂ eq/t-zementu	794	-10%	-1%
Altzairua	NZE 2050 (IEA) 1.5°C	1 eta 2	kgCO ₂ eq/t-altzairu	1.022	-10%	-1%
Ikatza (**)	N/A	N/A	Exposizioa eurotan	0	~0	Beteta
Hipoteka-zorroa (***)	NZE 2050 (IEA) eta CRREM 1.5°C	1 eta 2	kgCO ₂ eq/m ²	49,3	-10%	-29%

* Aldaketa metodologikoa gauzatu da Petroleo eta Gasaren intentsitate unitatean. 2022an zehaztutako helburuan ktnCO₂eq/MM€ unitatea erabili zen Entitatearen kontrako alderdi nagusiek ez zituztelako haien intentsitateak sektorearen oinarriko produkzio-unitatean argitaratzen. Taldearen kontrako alderdiek argitaratutako egungo informazioari esker, aurrez egindako kalkulua sofistikatu daiteke

** Ikatzaren ustiapen, meatzaritza, erauzketa, banaketa edo fintzetik diru-sarrerren % 20 baino gehiago lortzen duten enpresak (2023ko abendutik)

*** Oinarri-urtea 2022ko ekaineko datuei buruzkoa da. Erakundeak bere borondatez ezarritako helburua da, nazioarteko estandarrak jarduera-sektoreei buruzkoak baitira

2024ko ekitaldian **helburu berriak ezarri dira Altzairu, Zementu eta Ikatz sektoreetarako**, eta, hainbat metodologia kontrastatu ondoren, **Petrolio eta Gas sektoreetarako erabilitako metrikak berrikusi dira**. Helburuak finkatzen diren sektoreen zabaltze horrek indartu egiten du Erakundeak bere estrategiaren ardatz giltzarri gisa iraunkortasunarekin duen konpromisoa.

Aurrerapen-mailaren jarraipenari dagokionez, **azterketapean dauden sektore eta zorro guztiek aurrera egiten ari dira emisioen intentsitatea murrizteko bidean**, nahiz eta erritmoak desberdinak izan. Erakundeak kontrako alderdien eta sektoreen bilakaerari buruz jarraipen estua egiten jarraituko du, bakoitzaren ibilbidea baloratzeko eta, hala badagokio, eta beharrezko iritziz gero, arintze-neurri potentzialak hartzeko, bezeroei prozesu horretan laguntzen jarraitzen dien bitartean.

Horrez gain, 2024ko ekaina ixtean, Erakundeak **Eskuliburu Operatibo bat ere onartu eta ezarri du**. Eskuliburu horretan, besteak beste, ezarritako deskarbonizazio helburuen lorpen-mailan **desbideratze nabarmenak hautemanenez gero, jarraitu beharreko prozedura** deskribatzen da, eta baloratu beharreko arintze-neurri potentzialak planteatzen dira.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da, ezen, **deskarbonizazio helburuak kalkulatzeko eta neurtzeko erabilitako metodologia eta datuak oraindik ere hasiberriak direla**, eta merkatuak heldutasun handiagoa lortu ahala sendotuz joango direla.

Azkenik, **2024ko uztailleko Txosten Klimatikoan informazio zehatzagoa eta osagarriagoa ematen da** Taldean indarrean dauden deskarbonizazio helburuei buruz eta lortutako aurrerapen-mailari buruz.

Ohar metodologikoa

Helburuak finkatzeko, **zorroen lerrokadura konbinatu egiten da** Energiaren Nazioarteko Agentziatik (IEA siglak ingelesez) ateratako erreferentziazko pathwayetan oinarrituta, **Erakundeko aurkako alderdi nagusiek dituzten murrizte helburuekin**, modu horretan, aztertutako sektore bakoitzean **Parisko Akordioaren helburuak betetzeko**. Ildo horretan, Erakundeak bere finantzaketa- eta inbertsio zorroari buruzko helburuen definizioan **kontrako alderdi nagusiek markatu duten tarteko deskarbonizazio helburuei** buruzko informazioa erabili du, eta horren bilakaeraren eta betetze-mailaren jarraipena egiten du urtero.

Zientzian oinarritutako helburuen analisiak, sektore bakoitzeko **deskarbonizazio-ibilbideen** arabera **espero den anbizioa ezagutzeko** aukera ematen du. Hala ere,

helburuak maila korporatiboan finkatzearren, **Erakunderen kontrako alderdi nagusiek hartutako konpromisoak aztertu** behar dira, **Erakundeak “jarduteko gaitasuna” izango duen helburu batzuk finka ditzan.**

Taldeak **ezarritako deskarbonizazio helburuak betetzerako, hainbat neurri hartzen eta bultzatzen jarraituko du kontrako alderdi nagusiekin batera**, eta hurrengo ekitaldietan helburuen definizioa sektore gehiagotara zabaltzeko beharra balioetsiko du.